



## UDALBILTZA

---

### LEHENDAKARIA

---

#### ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

UDALBILTZA PARTZUERGOAK GEURETIK SORTUAK 2023-2024 BEKA DEIALDIAN ANTOLATZEN DITUEN ANTZERKIETARAKO, ZERBITZU TEKNIKOA, EKIPOEN ALOKAIRUA, MANTENU ESZENIKOA ETA AURRE- EKOIZPENA

#### - KONTRATUAREN XEDEA

Plegu hauetan oinarrituko den kontratuaren helburua da Udalbiltza Partzuergoak antolatzen dituen antzerkietarako zerbitzu teknikoa, ekipoen alokairua, ekipamenduaren mantenu eszenikoa eta ekitaldien aurre- ekoizpena egitea da.

Kontratuaren xede dira ondorengo prestazio hauek ematea:

Ekipamendu eszeniko eta ikus entzunezkoa alokairuan hornitzea.

Pertsonal teknikoa ikuskizun eta ekitaldietarako.

Antzerkiak egingo diren udaletako aretoetan dauden ekipamendu eszenikoaren kontrola.

Ekitaldien aurre-ekoizpena egitea.

Geuretik Sortuak 2023-2024 edizioan parte hartuko duten udalerrietara beharrezko bisitak egitea. Antzerki emanaldiak egiteko dituzten espazioak eta bertako material teknikoa ezagutu eta aztertu.

Udalbiltzako Kultur-teknikariarekin harremana mantendu momentu oro, emanaldi-irteeren berri izateko.



Geuretik Sortuak 2023-2024 edizioan izango diren antzerki emanaldi guztien aurre-produkzioa egin:

- o Proiektuan bekadun izan diren antzerki konpainiekin harremanetan jarri euren obrak dituen behar teknikoak ezagutzeko (material eta espazio aldekoak).
- o Udalerrietako kultur teknikariekin harremanetan jarri, konpainiek dituzten behar tekniko eta fisikoak ezagutarazi. Bertan duten material teknikoa zein espazioaren dimentsioekin uztargarritasuna aztertu.
- o Udalerriek eta konpainiek falta duten materiala eskaini emanaldirako.
- o Emanaldi bakoitzera, aurre-ekoizpena egin ostean zehaztutako beharrezko teknikari kopurua eraman, behar den materiala garraiatu eta bertan muntatzeko.
- o Emanaldia amaitzerakoan des muntaketa egin eta eskainitako materiala eraman.

#### - ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

- o **Lanen betebeharrak eta antolakuntza**

Lan hauek egin beharko dira, besteak beste:

- Ekipamendu eszeniko eta ikus entzunezkoa alokairuan hornitzea.
- Ekipamendua alokairu erregimenean hornitzean ekipamendua garraiatu, muntatu, kableatu, erabili eta desmuntatu.
- Alokaturako material horrek behar bezala funtzionatzen duela egiaztatuko da. Materiala erabiltzeko egoera ezin hobean egongo da, eta araudi aplikagarriak eskatzen dituen segurtasun neurriak beteko ditu.



- Materialak uniformetasun estetiko bat izango du, eta kokatu behar duten espazioetako beharretara egokitua egongo da.
  
- Ekipoak desmuntatu ondoren, horiek kokatu diren lekua libre, oztoporik gabe, garbi eta elementuak muntatu zituzteneko baldintza berberetan utziko du adjudikaziodunak
  
- Ekipamenduak estaltzeko behar diren elementuak jarri beharko ditu adjudikaziodunak (kontrola estaltzeko karpak, euria egiten badu ekipamenduak estaltzeko olanak, etab.). Puntu honetan aipatzen diren elementuek erabiltzeko baldintza estetiko eta higieniko ezin hobeetan egon beharko dute.
  
- Adjudikaziodunak behar adina kable estalki eduki beharko du ( 25m gutxienez) kanpoan (bide publikoan) instalazioak egiteko, baita suteak itzaltzeko beharrezko bitartekoak ere, bere ekipamenduan suteren bat gertatuz gero erabiltzeko.
  
- Pertsonal teknikoa ikuskizun eta ekitaldietarako
  1. Pertsonal teknikoak Partzuergoak eskatutako beharren edo ikuskizuna eskainiko duen taldearen edo konpainiaren beharren arabera muntatu edo desmuntatuko ditu ekipoak.
  2. Pertsona horiek arduratuko dira ekipoen probak egiteaz eta guztia puntuan egoteaz taldea-konpainia iritsi baino lehen.
  3. Enpresaren laneko arropa eramango dute, eta arauak eskatutako babes eta segurtasun neurriak bete.
  4. Konpainiei harrera egitea, beharrezkoa den kasuetan.
  5. Ekitaldi bakoitzak arduradun tekniko bat izango du, eta bera izango da Partzuergoaren eta konpainiaren bitartekaria.
  6. Teknikarien ardura izango da Geuretik Sortuak ekitaldietan zehar ekipamenduan zerbaitek huts egin badu, edo puskatu bada, enpresa adjudikaziodunaren bidez Partzuergoari jakinaraztea.



- Ekitaldien aurre-ekoizpena egitea.

7. Partzuergoak aurre-ekoizpena kontratatuko dio adjudikaziodunari.

- o **Lanak gauzatzea eta eskaera sistema**

Kontratuaren xede diren prestazioak Partzuergoak eskatu ondoren gauzatuko dira ezarritako baldintzetan.

Eskaera hori Partzuergoko kultur teknikariak egingo du, enpresa adjudikaziodunari bidalitako mezu elektronikoen bidez, eta bertan adieraziko du zein egunetan, non eta zein ordutan gauzatu beharko diren prestazioak.

Gauzatu beharreko prestazioetarako eskaerak, beranduenez, jarduera martxan jarri baino 7 egun lehenago egingo dira. Eskaera egin ondoren, emakidadunak 24 orduko epea izango du eskaera jaso duen bidetik erantzuteko, prestazioa egingo dela berretsiz eta, ahal den neurrian, hari atxikiko zaizkion pertsonen izen-abizenak emanez.

Salbuespen gisa, eta presako izaeraz, aurreko paragrafoan adierazitakoa baino epe laburragoarekin egin ahal izango dituzte eskaerak. Kasu horretan, eskaerak telefono bidez egiteko aukera egongo da. Eskaera presaz egin ondoren, kontratistak 3 orduko epean baieztatuko du prestazioa egingo duela, posta elektronikoen bitartez, eta bertan adieraziko ditu hari atxikiko zaizkion pertsonen izen-abizenak.

Adjudikaziodunak Partzuergoaren eskura jarri beharko ditu eskatutako baliabideak, ahalik eta eperik laburrenean eta, edonola ere, kasuan kasuko ekitaldi edo jarduera hasi aurretik.

Eskaerak egiteko adjudikaziodunak posta elektronikoen helbide bat jakinaraziko dio Udalbiltza Partzuergoko Kultur Teknikariari.



Lana egin behar den gunera iristean hasiko dira kontatzen zerbitzuak, eta zerbitzua bukatutakoan ekitaldiaren gunea utzitakoan amaituko dira.

Edozein kasutan, ekitaldia garatzeko beharrezkoak diren baliabideen aurrekontua Udalbiltza Partzuergoko Kultura departamentuak onartu behar du ekitaldia baino 24 ordu lehenago beranduenez.

## - LANGILEAK

Hauek dira gutxienez zerbitzu honi atxikita izan beharreko lanpostuak eta horietako bakoitzerako profilak:

### Ardura postuak hiru dira:

1. **Zerbitziburua:** Kontratuaren arduraduna eta koordinatzailea izango da.

Era berean, zerbitzuburuaren ordezkotzat ere izendatuko da, eta Udalbiltza Partzuergoaren onespena izan beharko du opor garaian, atsedenaldietan, hura kanpoan denetan, gaixo dagoenean...

🕒 **Prestakuntza** erdi mailako prestakuntza zikloko ikasketak eduki beharko ditu gutxienez.

🕒 **Esperientzia** kontratuaren xede diren zerbitzuak kudeatu eta egiten gutxienez hamar urteko esperientzia jarraitua. Enpresa ziurtagiri bidez egiaztatuko da esperientzia lanean.

2. **Arduradun teknikoa:** Ikuskizun zein ekitaldietan ardura tekniko-eszenikoa izango duen pertsona izango da.

🕒 **Prestakuntza** erdi mailako prestakuntza zikloko ikasketak eduki beharko ditu gutxienez.



- ⌚ **Esperientzia** kontratuaren xede diren zerbitzuak kudeatu eta egiten gutxienez hiru urteko esperientzia jarraitua. Enpresa ziurtagiri bidez egiaztatuko da esperientzia lanean.
  
- 3. **Ekoizpen arduraduna:** Ikuskizun zein ekitaldietan ekoizpenaren arduraria izango duen pertsona da. Bera izango da ekitaldi bakoitzeko lanak aurretik onartuak izatearen arduraduna.
  
- ⌚ **Prestakuntza** erdi mailako prestakuntza zikloko ikasketak eduki beharko ditu gutxienez.
  - ⌚ **Esperientzia** kontratuaren xede diren zerbitzuak kudeatu eta egiten gutxienez hiru urteko esperientzia jarraitua. Enpresa ziurtagiri bidez egiaztatuko da esperientzia lanean.

**Teknikarien lan-taldea:**

1. **Teknikarien lan-talde finkoa:** Zerbitzuari erantzuteko 2 pertsona izan beharko dira. Horretaz gain behar diren guztiak zerbitzuari erantzuteko.
2. **Teknikarien lan-talde finkoa** egiaztatu egin beharko du kontratuaren xede diren zerbitzuak egiten gutxienez 24 hilabeteko esperientzia duela lan-talde finkoko kide bakoitzak.

Pertsona bakar batek lanpostu ezberdinetako lanak egiteko aukera izango du, baldin eta pertsona horrek lanpostu bakoitzari eskatutako baldintza guztiak betetzen baditu.

Egin behar duten lanarekin bat datorren janzkera edukiko dute langileek. Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango da laneko arropa, bai eta segurtasun araudia betetzeko beharrezkoa dena ere. Laneko uniforme eta arropetan ez da azalduko inondik ere Udalbiltza Partzuergoaren logotipoa; hala badagokio, enpresa adjudikaziodunaren marka edo logotipoa eramango dute.

**- UDALBILTZA PARTZUERGOAREKIN GEURETIK SORTUAK 2023-2024 BEKAN ANTOLATUTAKO JARDUERAK**



2021 eta 2022an egindako ekitaldiak hartu dira erreferentzia modura eranskinean dagoen taula osatzerako garaian.

Bertan azaltzen den zerrenda, izan beharreko materialen gutxieneko zerrenda izango da.

Izango diren saio kopurua: 52. Horietatik herenak kale antzerkia.